

## Xiberoko arima

ALLANDE BOUTIN



**ERDI** aroan Europako hainbat herritan emaiten ziren. Britainian, misterioak deitzen ziren. Proventzan, trajeriak edo pastoralak, Euskal Herrian bezala. Baina aspalditik Xiberuan baizik ez dira gehiago aurkezten. Berriz ere euskaldunen 'jenioaren' adibidea dugu: guztiz zabala zen ohidura bat, adierazpen bat, unibertuala nolabait, gaur egun oso euskalduntzat jo daitekeen zerbait, eta hemen baizik irauten ez duena: Xiberoko pastorala!

Aurten Arrokiagako herriari zor diogu aldi oroz ber sortzen den miraria: hots herri tipi batek bere gain antzerki herritarren haritzea. Ez baita gutti 130 bizilagun besterik biltzen ez dituen Arrokiagako pastorala eman dezan... Biztanle hauetarik 78 antzesle ditugu, besteek antolaketari nola ongi etorriari ekin dietelarik! Azken urte hontan amestu zuten pastorala. Azken sei hilabeteotan testuak, bertsoak, kantak eta dantzak ikasi eta landu zituzten. Eta uztailearen 23an lehen emanaldia eskaini... Urduritasun pittin batez, herriaren ohorea jokoan baitzen. Baina zein ongi eman duten Arrokiagatarrek 'Agirre pastorala'! Oino misterio bat zait Agirre eta orduko Euskadiren berririk ia inoiz euki ez duten Xiberotar hek nola berenganarazten duten. Hunkigarria bai, laborari den 'süjeta' erran nahi beita antzesle nagusia, Agirre papela egiten. Zein errespetoarekin eta gizatasunaz!

Inperfekzio txiki zombaiten azpitik horra pastoralaren majia: egun bakar bateko antzesleak eta kantariak entzun-ikustea, gaian, aldi hontan Agirre zen lehen eusko Lehendakariaren trajeritan murgiltzen direlarik.

Pastorala: Xiberoko arimaren islada.

## Garestia

XABIER OLEAGA



**JUAN** Manuel Soares Ganboak ezin izan du gehiago irau. Bere egoeran beste askok ere antzerko urratsak ez ematea da miresgarria, eta hori ez gertatzea zerbaiten adierazgarria.

Ulertzekoa da, onargarria ala ez hori norberaren esku badago ere, Soares Ganboa bere jaioterri eta biziterriko Logroñora itzultzeko edozer egiteko prest egotea, deportazioaren zama bukaera gabeko eta astunetik urrun. Baina itzultzearen erraztuko diotela adierazi diotenean bai prezio garestia jarri diotela bere desioari. Azkenengo beste bieie ere jarri zuten bezala. Fermin Latasari eta TVEko kamera aurrean aurpegiaren irudia distortsionatuta duela hilabete batzuk deklarazioak eginez atera zen preso pasaitarrari ere 'bergizarteratzeko neurriak' deitutako horien pean irteerako gehienera baino gehiago eskatu diete. Logroñoko Atutxari aurpegia garbitzen lagunduko liokeen eskutitza, publiko egitera zuzendutakoa, idaztera behartu dute.

Kontua da neurri mota hauek ez direla oso koherenteak EAJko bozeramaile nagusiek ezker abertzalearekiko azken garaian adierazten dituzten jarrerekin. Hitzak gezurtatu dituzten egitekin ez baitago aurrera egiterik, eta badaude 'bergizarteratze' modu batzuk ezker abertzalearen aurkako eraso gisa baino ezin uler daitezkeenak.

Beraz, 'bergizarteratze' gisa ulertzen denaren kuestionamendurik ez da falta beste parametro batzuetan ere. 'El País' egunkariak zekarren lehengo batean neurri horiei heltzeko prest leudekeen zenbait preso eta errefuxiatu edo deportatutak atzera egiten dutela orain. Arrazoi berriro ere ETaren indarrak, eta hortik irits daitezkeen aterabideak, sinesgarritasuna lortu duela galtzear zeukan zenbait jenderen artean.

## ● ARGIA

## Onceren alde

Errealeko Etxeberria Athleticek fitxatu duenean sortu den giroa tratatu bat idaztekoa izan da, non malgizoen definizioa, gipuzkoar zintzoen oinarriak, bizkaitar jatorren muinak, euskaldun zuzenen portaerak eta malgizon guztien definizioak agertuko liratekeen.

(...)

Ni neu ziklismo zalea naiz. Aurrez esan behar dut ziklismoa ez dela kultura, alegia harrijasotzea, aizkolaritza, sokatira, arrauna, eta abar bezalaxe dela, futbola eta gastronomia bezalaxe. Beraz ikaragarritzko enbarazua sortzen dit kirol nazionala,

kulturgune nazionala, kirolgile nazionala eta gisakoak izatea.

Esan nahi nuena zen, eta hau ere ez da kultura, ez dela serio hartu behar, ez naizela Indurainen zalea eta eskubide osoa dudala ez izateko neure herriari eta herritarrei traiziorik egin gabe. Gainerantzeko gauzak madretik ateratzea dela eta elkarbizitza gaiztotzea besterik egiten ez duen aberrikeria dela.

RAMON ETXEZARRETA



## Aguirre

Pastoralzale nintzan joan den igandean eta, Arrokiagako itzulua egirik, Euskal Herriko herri tipienetarik batek egin duen balen-



PANCHO / LE MONDE

triaz bozkariaturik, etxeratu naiz. Ageri da ez dela hila Xiberoko.

Gai ederra, osoki abertzalea, Aguirre lehenbiziko Eusko Jaur-laritzaren lehendakaria izanaren bizia aipatzen duena, gizon handia, bizi dituenak bizi, pairatu dituenak pairatu, aspaldi honetan

izana izenari lotua zaiolarik.

Duela hamazazpi urte, 1978an hain zuzen, sator lanak egin zuen berea Ibañeta zeritzan pastoral abertzale baten kontra. Dirudia-nez desagertu da sator-lana, ihes egin dukete satorrek.

GEHEXAN PONTTO

## LUZENDARIARI

## EAJrekiko gorrotoa

Gorrotoa beti aholkulari txarra dela esan ohi da, eta hala dela sinesten dut nik. Gogoeta hau etorri zait burura Joseba Azkarragaren 'Egileak eta konplizeak' izeneko artikulua (EGUNKARIA 95/7/23) irakurri ondoren. Bertan, «Rodríguez Galindo, Barrionuevo, Vera, Sancristobal, Amedo, Dominguez, Saenz de Santamaria eta antzeko...» horien ekintzak direla eta, Azkarragak «EAJren hipokresia salatu nahi» duela esango du, gero Eusko Alderdi Jeltzalea gogorki astintzeko, berarentzat, nonbait, alderdi honi dagokio GALEk egindako sarraski guztien erantzukizun handiena, zeren esandako artikuluan EAJren zigor-aipamena lau-bost aldiz egiten duen bitartean PSOE alderdiarena behin baino ez bait da azaltzen, hau da hau itsukeria eta gorrotoa EAJrekiko!

Iritziak iritzi, Azkarraga jaunak askatasun osoa dauka nahi duena esateko, baina bai besteek beste horrenbeste egiteko ere; dena dela, nire ustez, objektibitate txikiena izateko gauzak beren puntuan ipini behar dira. Ni oker ez banago, GALEn epe gogorrena 1983 eta 1986aren artekoa izan zen eta garai hartako parte handi batean Joseba Azkarraga, bai eta bere oraingo alderdiko burua den, hau da, Carlos Garaikoetxea jauna dakidenez EAJko alderdikideak ziren. Eta ez nolanhiko alderdikide, bera diputatua zen bitartean beste Euskadiko Lehendakaria. Beraz, biek bazeukaten informazioa izateko non eta horren arabera zer egin.

Azkarragak gaur salatzen duena egia bada, berak eta berak baino gehiago Garaikoetxeak,

oso erantzukizun handia daukatelakoan nago. Garai hartan zergatik ez zuten ezer esan edo egin?; ala zerbait salatu zuten edo egin zuten? Baina esandako garai hartan EA ez zegoenez, eta beraiek jeltzaleak izanik egindakoa EAJren izenean egingo zuten, ala ez?

Azkarragak esaten duen bezala: «Historiak nor bere tokian jarriko du. Kontzientzia oso lasai dut, Madrilen EAKo ordezkari nintzela nire ustez egin behar nuena egin nuelako». Horixe baietz, «Historiak nor bere tokian jarriko duela», baiña gure Herri honen Historia ez da EArekin hasi, Azkarragaren artikulua irakurri ondoren baten batek pentsa dezakeen bezala, askoz antzinagotik badatoz eta azken urte hauetan EA sortu aurretik, bai eta gero ere, EAJ alderdiak esandako Historian, zorionez, parte handia hartu du eta Azkarraga jaunak EAJren alderdikide berezia, hots, diputatua, izan zenez gero, onerako edo txarrerako bere erantzukizuna izan badu.

Benetan pena ematen dit gorrotoak zer egin dezakeen ikusteak: batzuentzat arerioa jipoi-tzeagatik dena da zilegi nonbait. Eta kasu honetan Azkarragak bere aurreko alderdiari, EAJri, erasotzeagatik bere buruaren historia eta ibilitako bidea ahaztu nahi du. Honek, oker ez banago, psikologian bere atal berezia badu eta 'aitarekiko gorrotoa' edo esaten zaio.

Azkarraga jaunak oso lasai dagoela esaten du eta ni pozten naiz, baita ni ere, EAJko alderdikide bezala, oso lasai nago, munduko gainontzeko guztiek bezala nire alderdiak bere hutsak izango ditu noiz edo noiz, baina ez kasu honetan eta honela ez baliatuz izango garai hartako parte handi bateko Euskadiko Lehendakariari bai eta diputatu gisa Azkarraga jaunari ere zerbait dagokielakoan nago. Gure

esaera zaharrak esaten duen bezala: «Bakoi-tzari berea, Jainkoaren legea».

LUIS BANDRES UNANUE

Donostia

## Beasaingo udaletxeak fideltasuna saritzen du

Beasaingo igerileku municipalaren konzesioan azken egun hauetan gertatutakoa argitzeko asmoz, uztailearen 16a arte konzesioa hartu genuenok Udaletxearen eta Kirol Udala Erakundearen jarrera salatu nahi dugu. Zerbitzu honetan ematen ari ziren irregulartasunak behin eta berriz Udaletxearen eta Kirol Udala Erakundearen aurrean salatu genituen, hauek behar ziren neurriak hartuko zituztelakoan.

Udaletxeak gertaera hauen aurrean hartu duen erabakia konzesioa bertan behera uztea izan da. Udaletxearen eta Kirol Udala Erakundearen aurrean irregulartasunak zeintzuk izan ziren argi eta garbi utzi eta gero, hauek hartu duten erabakia errezena izan da. Hau da, guk egindako proposamenak kontutan hartu gabe eta arazoa konpontzeko batere ahaleginik egin gabe guk ekainaren 1ean hartu genuen konzesioa kentzea erabaki dute. Hitz batean, Udaletxeak eta Kirol Udala Erakundeak gure fideltasuna lanposturik gabe utzi ordaintzen digute, bere garaian salaturiko egoera irregular horren kaltetuenak gu izanik.


IGOR MATE

AITOR BERISTAIN

ELENA URANGA

Beasain (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



## Irteera operazioa

Egun hauetan jende dexente egingo da abiatu, jadanik askok motxilak eta maletak ditu prestatu. Oporretaz gozatu, honetaz ez ahaztu: bizirik zarela irten, saiatu zaitz bueltakoan santo ta ongi iristen.

JOSU ZELAIA

## Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90  
ISSN 1134-640X



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URÍA

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

## HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gudarien etorbidea, z/g / 20140 Andoain  
☎ 300 222 / Erredakzio faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
☎ Publizitatea: 13 19 65

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea  
☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77 / ☎ Publizitatea: 17 66 86

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo  
☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orokorra: 410 38 55  
Publizitate Lokala: 410 38 46

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta  
kutxatila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11